

Irakasleen Etengabeko Prestakuntzarako Prest Gara 2018-2019 Plana

Norentzat

Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako irakasleentzat eta 0-3 urteko zikloan lan egiten duten irakasleentzat, ziklo horretarako jardueretan.

Eskaera egiteko epeak.

Eskaerak aurkezteko bi epe irekiko dira. Epe bakoitzean, epe horri dagozkion prestakuntza-jardueretarako soilik aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

a) Lehen eskaera-epea:

- 2018ko uztailean, abuztuan, irailean eta urrian hasten diren jarduerak.
- Eskaera egiteko epea: 2018ko ekainaren 4tik 15era, biak barne.

b) Bigarren eskaera-epea:

- 2018ko azarotik 2019ko ekainera bitartean egiten diren jarduerak.
- Eskaera egiteko epea: 2018ko irailaren 5etik 28ra, biak barne.

Eskaerak aurkeztea

Eskaera telematikoki egingo da, Hezkuntza Saileko aplikaziora jota (esteka), Irakaslegunea atarian. Ikastetxe publikoetako nahiz itunpeko ikastetxeetako langileak sar daitezke han.

Epe bakoitzaren barruan, nahi adina prestakuntza-jardueretarako eskaera egin daiteke, eta eskaera-orrian haien lehentasun-ordena adieraziko da.

Prestakuntza-jarduerak

2018-2019 ikasturterako prestakuntza-jardueren zerrenda Hezkuntza Sailaren webgunean kontsulta dezakete irakasleek, 2018ko ekainaren 4tik aurrera.

Irakaskuntzan STEILAS!

www.steilas.eus